

LEIOAKO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK, 993/15 DEKRETUAK ARAUTUTA.

1. Diru-laguntzaren xedea

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen xedea da emakume eta gizonen arteko berdintasun alorreko programen finantzazioan laguntzea, Leioako udalerriko edozein jarduera esparrutan burutzen direnak, eta horien helburuak erreferentzia egiten badio emakume eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzeari.

2. Entitate hartzaileak

Laguntzak eska ditzakete edo onuradun izan daitezke indarrean dagoen Udaleko Berdintasun Planarekin bat datozen jarduerak antolatzen dituzten Emakumeen Elkarteak.

Onuradun izateko, gainera, elkarte eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Helbide soziala Leioan izatea.
- Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Leioako Erakundearen Udal Erregistroan izena emanda egon behar dute. Euren jarduera esparruak, halaber, Leioan egon behar du.
- Gutxienez, 2 urteko ibilbidea egiaztatzea emakume eta gizonen arteko berdintasunaren helburuaren aldeko lanean.

Ezingo dira diru-laguntza hauen onuradun izan sexuagatiko bereizkeriagatik administrazio-zehapena edo penala betetzen ari diren edo, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, honako Ebazpenean aurreikusitako laguntzak jasotzeko debekuekin zehatuta dauden erakundeak.

Ezingo dira diru-laguntza hauen onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako inguruabarretakoren bat betetzen duten erakundeak, Leioako Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko artikulua bakarrak dioen bezala.

3. Diruz lagunduko diren proiektuak

Diruz lagunduko dira helburu hauetara bideratutako jarduera eta proiektuak:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatzea sustatzea.
- Genero estereotipoak eta rolak gainditzea sustatzea.
- Emakumeen ahalduntzea sustatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako informazio, sentsibilizazio, prebentzio eta ekintzara bideratutako jarduerak eta proiektuak burutzea.
- Emakumeen partaidetza ikusgarri egitea eta baloratzea esparru desberdinetan.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasun perspektiba garbirik ez duten proiektuak.
- Osorik Leioan burutuko ez diren proiektuak.
- Honakoak bezalako bazkide edo onuradunen aktibitateak: txangoak, jaiak, askariak, bazkariak...
- Elkarrearen azpiegitura eta mantenu gastuak (argia, ura eta telefonoa).
- Leioako Udaleko edozein sailetatik garatzen ari diren jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak.

4. Aurkeztu beharreko agiriak

a.- Inprimakia beterik (I. ERANSKINA).

b.- Erakunde eskatzailearen ordezkaria den pertsonaren NAN fotokopia.

c.- Bere garaian, Elkarteen Udal Erregistroan aurkeztutako baldintzak aldatu ez direla dioen zinpeko adierazpena. Administrazioak informazio hori konprobatuko du ofizioz, diru-laguntza honen erakunde onuradunei exijitutako baldintza legalak egiaztatzeko (V. ERANSKINA).

d.- Egingo diren gastu eta sarreraren aurrekontu xehatua azaltzen duen zinpeko adierazpena. Eskaerako jarduerak egiteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuei diru-laguntzarik eskatu baldin bazaie edo haiengandik diru-laguntzarik jaso bada, erakunde horiek zeintzuk diren adierazi beharko da, eta diru-laguntzen zenbatekoa aipatu (III. ERANSKINA).

e.- Erakundearen ordezkari baten zinpeko adierazpena erakunde eskatzaileak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik barne jarri diru-laguntza publikoak jasotzeko, sexu-bereizkeria egiteagatikoak barne (VI. ERANSKINA).

f.- Hirugarrenen fitxa behar bezala beteta, Udalarekin lehen aldiz harremana duten elkarteen kasuan (IV. ERANSKINA).

g.- Bazkideen erregistroa, izenez.

h.- Egin beharreko jardueren proiektu xehea (II. ERANSKINA).

5. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira (Elexalde 1 helbidean), (publiko aurreko ordutegian)

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazten diren tokietako edozeinetan ere aurkez daiteke.

Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdia Udaletxeko ediktu taulan eta Udal web gunean (www.leioa.eu) argitaratzen denetik aurrera zenbatuta.

6. Balorazio irizpideak

Leioako Udalak jarraian azaltzen diren irizpideak hartuko ditu kontuan diru-laguntzak esleitzeko:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
<p>PROIEKTUAREN INTERESA</p> <p>Jarduerak beste entitate, talde eta udal sail batzuekin koordinatuta burutzea.</p> <p>Leioako Udaleko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Planera egokitzea.</p> <p>Proiektua berritzailea izatea, jarraipena izan dezala denboran, inpaktua eta iraupena.</p> <p>Justifikazioa, helburuak, edukiak eta proiektua abiarazteko behar diren baliabideak edukitzea.</p> <p>Jardueren onuradunak (zehaztuz beharizan berezirik duten emakumeak diren ala ez).</p> <p>Jardueraren aurrekontua.</p>	GEHIENEZ, 70 PUNTU
<p>ERAKUNDE ESKATZAILEA BERDINTASUN ARLOKO JARDUEREN ARABERA BALORATZEA</p> <p>Elkartearen osaera eta bazkide kopurua.</p> <p>Azken bi urteotan, elkarteak emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan egindakoari buruzko memoria.</p> <p>Ibilbidea udalerrian.</p>	GEHIENEZ, 30 PUNTU
GUZTIRA	GEHIENEZ, 100 PUNTU

Diru-laguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuek, gutxienez, 50 puntu lortu behar dituzte, aurreko irizpideen arabera.

7. Balorazio irizpideak

Emango den zenbatekoa Elkarteko bakoitzak lortutako puntuazioari portzentaje bat aplikatuz doitu da, jarraian dagoen taularen arabera:

Programaren puntuak	Emango den diru-laguntzaren ehunekoa
80 puntutik gora	Eskatutako zenbatekoaren %100era arte
71-80 puntu bitartean	Eskatutako zenbatekoaren %80ra arte
70 puntutik behera	Eskatutako zenbatekoaren %70era arte

8. Diru-laguntzaren ebazpena

1.- Eskabideak Leioako Udaleko Berdintasun Sailak tramitatuko ditu.

2.- Eskabideak barematzeko batzordea Udaleko Berdintasun Saila zaingo da. Batzorde horretan, saileko langileez gain, kanpoko aholkulariek parte hartu ahal izango dute eskabideak baloratu eta hautatzeko.

Barematzeko Batzordeak diru-laguntzak esleitzeko proposamenak bidaliko ditu Alkatzetara, norgehiagoka erregimenarekin ados eta araudi honetan aurreikusitako balorazio irizpideen arabera.

3.- Diru-laguntzen emakida edo ukapena Alkatzetza Dekretu bidez egingo da.

4.- Eskatutako laguntza eman edo ukatzeko ebazpenek bide administratiboari amaiera ematen diote. Horien aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dezakete irizpena eman duen organoaren aurrean, edo zuzenean, inpugna ditzake Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan.

5.- Eskabideak ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da horiek jasotzeko epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Ukatutzat emango dira eskabideak beren-beregiko ebazpenik ez balego aipatu epearen barruan.

9. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua

Diru-laguntzen deialdi honetarako erabil daitekeen kreditua, gehienez, 6.475 €, izango da, aukeratutako proiektuen artean banatuta.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango da 4.000 euroren gainetik egon, Elkarte bakoitzeko, eta onartutako aurrekontuaren %100 finantza liteke.

Deitu diren diru-laguntzak eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede berarekin emandakoak bateragarri izango dira. Ordea, ezin da inola ere gain-finantzaketarik gertatu, hau da, beste erakunde batzuekin batera emandako diru-zenbatekoa, guztira, ezin daiteke izan jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

Diru-laguntza bat baino gehiago jasotzearen ondorioz gain-finantzaketa gertatzen bada, erakunde onuradunak Leioako Udalak eman dion diru-zenbatekoaren zati bat itzuli beharko du, finantzatu den zenbateko osoaren aldean udalak egin duen ekarpen osoaren proportzio berean.

Diru-laguntza bi epetan ordainduko da. %70 ordainduko da justifikazioa egin aurretik. Gainerakoa, %30, jarduera bukatutakoan, eta behin justifikazioa eginda, ordainduko da.

10. Gastuen justifikazioa

Erakunde onuradunek, edozein kasutan, 2015eko otsailaren 28a baino lehen justifikatu beharko dute, honako memoria hauen bidez:

- Egindako proiektuaren azalpen memoria, lortutako emaitzen balorazioa barne.
- Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako eduki honekin:
 - Diruz lagundutako jarduerari dagozkion fakturak.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria zehaztuz.
 - Proiektuan egin diren programa, kartel eta idatzizko edo ikus-entzunezko agiri guztien ale bana. Horietan guztietan, Leioako Udaleko eta Berdintasun Saileko irudi korporatiboek agertu beharko dute.

Diruz lagundutako jarduera edo proiektua justifikatzeko dokumentazioa osorik edo zuzen ez balego, Berdintasun Sailak eskatuko dio elkarte interesdunari irregulartasunak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, 10 eguneko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzeko hasita. Hori egingo ez balu, Elkarteak ordaindutakoa itzuli beharko lioke Leioako Udaleko Diruzaintzari.

11. Elkarte onuradunen obligazioak

1. Helburua bete eta proiektua betearaztea diru-laguntzaren emakidaren arabera.
2. Diru-laguntza jaso duen programa ez aldatzea Berdintasun Sailak, aurretik, oniritzia eman gabe.
3. Publizitatean eta edozein komunikazio ekintzatan agerian jartzea proiektua Leioako Udalaren eta Berdintasun Sailaren laguntza eta finantzaketarekin burutzen dela, irudi korporatibo biak txertatuz.
4. Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera sexistarik ez egitea proiektuarekin lotutako publizitate eta komunikazioan.

I. ERANSKINA 2014ko DIRU-LAGUNTZA ESKAERA
Berdintasun Saila berdintasuna@leioa.net

LEHEN ABIZENA

BIGARREN ABIZENA

IZENA

NAN

TELEFONOA

ZEREN IZENEAN

ELKARTEA

IFK

HELBIDEA

PK

E-MAILA

FAXA

HAU ADIERAZTEN DU:

Leioako Udaleko Berdintasun Sailaren diru-laguntzen deialdia ikusirik, Leioan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak antolatzeko egina 2015ko ekitaldian, eta horien oinarriak ezagututa,

ESKATZEN DU:

_____ izeneko proiektua burutzeko diru-laguntza ematea, _____ euroko kostua duena. Horretarako, eskatutako agiriak erantzen dira, eta agiri horiek benetakoak direla adierazten dut.

Lekua eta data: _____

Sinadura eta zigilua

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko jakinarazi nahi dizugu agiri honetan azaldutako datuei tratamendu automatizatua emango zaiela, eta Udalaren ardurapeko fitxategietan sartuko direla. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri administrazio batzuei laga edo hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie, betiere aipatutako legean aurreikusitako kasuetan. Interesdunek datuak ikusi, ezeztatu, zuzendu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, udal bulegoetan eskatuz.

II. ERANSKINA

2014ko JARDUEREN PROIEKTU XEHATUA

Berdintasun Saila berdintasuna@leioa.net

PROIEKTUAREN IZENA

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

HELBURU OROKOR ETA ZEHATZAK

JARDUEREN ETA METODOLOGIAREN DESKRIBAPENA

NON BURUTUKO DA

EGUTEGIA ETA IRAUPENA

ELKARTEAREN AURKEZPENA (bazkide kopurua, ibilbidea...

ELKARTEAREN ESPERIENTZIA BERDINTASUN PROIEKTUETAN

KOORDINAZIO LANA (beste erakunde, talde udal sail... batzuekin sarean lan egitea aurreikusita dago? Zehaztu zeintzuk eta koordinazio prozesua)

LEIOAKO EKAMUMEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANARI EGOKITZEA ADECUACIÓN (azaldu jarduerak zelan egokitzen diren Planaren helburu eta ekintzetara)

AURREIKUSITAKO JARDUERAREN INPAKTUA (emaitzak eta pertsona onuradunak)

ESPERO DIREN EMAITZAK

KOMUNIKAZIO ETA DIFUSIO SISTEMA

BERDINTASUN SAILEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

**III. ERANSKINA 2014ko GASTU ETA SARREREN AURREKONTU XEHATUAREN ZINPEKO
ADIERAZPENA**

2014ko DIRU SARRERAK

Berdintasun Saila berdintasuna@leioa.net

ADIERAZTEN DU:

_____ izeneko proiektua burutzeko, 2015an, Leioan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan proiektuak eta jarduerak abiarazteko Leioako Udaleko Berdintasun Sailaren diru-laguntzen deialdi publikoaren markoan, ordezkari naizen Elkarateak honako baliabide ekonomikoak ditu jarduera aurrera eramateko.

FINANTZATZEN DU KONTZEPTUAK	LEIOAKO UDALEKO BERDINTASUN SAILARI ESKATUTAKO DIRU- LAGUNTZA	ESKATUTAKO BESTE DIRU- LAGUNTZA BATZUK	ELKARTEAREN EKARPENA	PORIEKTUAREN KOSTUA, GUZTIRA
MATERIALAK				
ORDAINSARIAK ETA BETEARAZPEN GASTUAK				
PUBLIZITATEA ETA DIFUSIOA				
GUZTIRA				

Eta egoki den lekuan ager dadin, izenpetzen dut.

Data eta lekua _____

Elkarte eskatzailearen sinadura eta zigilua

IV. ERANSKINA HIRUGARRENEN FITXA

Berdintasun Sailsa berdintasuna@leioa.net

ELKARTEAREN IZENA / IZEN SOZIALA

IFZ / NAN

ORDEZKARIAREN IZENA, ABIZENAK ETA NAN

HELBIDEA

PK / UDALERRIA

POSTA ELEKTRONIKOA

TELEFONOAK

FAXA

BANKUKO DATUAK

- **IBAN (4 digitu):**

- **Kontuaren titularra:**

- **Zenbakia (20 digitu):**

Data, Sinadura, Izena eta sinatzailearen NAN

Banku ziurtagiria behar dugu egiaztatzeko ematen diguzuen bankuko kontua ondo dagoela, edo bestela, bankuaren zigilua "Bankuko datuak" atalean.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko jakinarazi nahi dizugu agiri honetan azaldutako datuei tratamendu automatizatua emango zaiela, eta Udalaren ardurapeko fitxategietan sartuko direla. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri administrazio batzuei laga edo hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie, betiere aipatutako legean aurreikusitako kasuetan. Interesdunek datuak ikusi, ezeztatu, zuzendu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, udal bulegoetan eskatuz.

V. ERANSKINA ZINPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Berdintasun Sailsa berdintasuna@leioa.net

_____ jaunak/andreak,
_____ IFK duen _____ izeneko Emakumeen Elkartearen
ordezkari legala, zinez adierazten du bere garaian Elkarteen Udal Erregistroan aurkeztutako Elkartearen baldintzak,
gaur egun, ez direla aldatu.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzan, sinatu egiten du.

Lekua eta data:

Izen-abizenak:

Elkarte honen ordezkaria:

VI. ERANSKINA ZINPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Berdintasun Sails berdintasuna@leioa.net

_____ jaunak/andreak,
_____ IFK duen _____ izeneko Emakumeen Elkartearen
ordezkari legala, zinez adierazten du elkarte ez dela diru-laguntzarik eskuratzea ukatzen dion administrazio-zehapen
edo penalik betetzen ari , eta ez duela diru-laguntzarik jasotzea ekiditen dion debeku legalik, sexuagatik bereizkeria
egiteagatik eragindakoak barne.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzan, sinatu egiten du.

Lekua eta data:

Izen-abizenak:

Elkarte honen ordezkaria: